

DEIALDIA

Bihar, ostiralean, Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitzan, 09:30ean

Arantza Quirogak ahotsa ezagutzeko sistema eksklusiboa aurkeztuko du, entzumen-urrituek politikan esku hartzea bultzatzeko

Eusko Legebiltzarra lehendakari izango duen E-Demokrazia jardunaldian

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria bihar arituko da Europako Eskualdeetako Legebiltzarren Batzarreko E-Demokrazia taldearen bileraren buru. Talde horren aitzindaria Eusko Legebiltzarra da, eta haren helburua da informazio eta komunikazioko teknologia berriak herritarren partaidetzaren zerbitzura jartzea.

Horiek horrela, bihar, Eusko Legebiltzarrak, bere lehendakariaren bitartez, Ganberak abian jarri nahi duen tresna berri bat erakutsiko du. Tresna hori hitzak ezagutzeko sistema bat da, ahotsa eta testua sinkronizatzen dituena. Berari esker, entzumen-urrituek orain arte politikan parte hartzeko zeukaten muga bat gaindituko da.

Eusko Legebiltzarrak berak Europako beste eskualde-legebiltzarrei galdeketa bidali zizkien, eta galdeketa horietan eskatu zien haien ustez hobetzekoak ziren alderdiak adierazteko. Emaizen arabera, nagusi zen ahalmen-urrituak politikan integratzeko eta esku hartzeko aukerak hobetzeko beharra.

Bihar aurkeztuko den tresnaren bidez, Eusko Legebiltzarrak beste urrats bat emango du bere jarduera politikoa mugarik gabekoa eta herritar guztientzat irekia, gardena eta eskuragarria izan dadila.

Data: Bihar, ostirala, 2010eko uztailaren 9a

Ordua: 09:30

Tokia: Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitza





CONVOCATORIA

Mañana viernes a las 9,30 horas en la sede de las Juntas Generales de Gipuzkoa

Arantza Quiroga presenta un sistema exclusivo de reconocimiento de voz para fomentar la participación política de discapacitados auditivos

Dentro de la jornada de E-Democracia que preside el Parlamento Vasco

La Presidenta del Parlamento Vasco preside mañana la reunión del Grupo E-Democracia de la CALRE (Conferencia de Asambleas Legislativas de Regiones de Europa) que lidera la Cámara Vasca y que trata de poner las nuevas tecnologías de la información y la comunicación al servicio de la participación ciudadana.

En este sentido será mañana cuando el Parlamento Vasco, por medio de su Presidenta, realice una demostración de una nueva herramienta que la Cámara quiere poner en marcha: un sistema de reconocimiento de habla que sincroniza voz y texto, que va a permitir superar una barrera a la que hasta ahora se enfrentaban los discapacitados aditivos a la hora de participar en la política.

El resultado de las encuestas remitidas al resto de Parlamentos regionales europeos por el propio Parlamento Vasco y en las que se les invitaba a remarcar aquellos aspectos que creían había que mejorar, destacaba la mejora de la integración y participación en la política de los discapacitados.

Con la herramienta que mañana se presenta el Parlamento Vasco da un nuevo paso en su deseo de que la actividad política que en su sede se desarrolla carezca de barreras y sea completamente abierta, transparente y accesible para todos los ciudadanos.

Día: Mañana viernes, 9 de julio de 2010-07-08

Hora: 9,30 horas

Lugar: Sede Juntas Generales de Gipuzkoa



